

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Diputatuen Kontseiluak 2016ko azaroaren 8ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 718/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, Erabakia, Aldundi honen elkartasun eta lankidetzaren politikaren esparru ageriko hutsen zuzenketa onartzen duena. Agiri hori urriaren 4ko 629/2016 Erabakiaren bidez onartu zen.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 719/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, Markinako Kontzejuko Kudeaketa Batzordea eratzea eta haren osaera onartzen dituen.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 720/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, ebatzen duena Arabako eskualde behartsuetan enplegua sortzeko laguntzen 2016rako deialdi publikoa, irailaren 6ko 539/2016 Erabakiaren bidez onartua.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 721/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, onartzen duena Araba Garapen Agentzia SARi abala ematea, Kutxabank SAREkin izenpetu beharreko epe luzerako mailegu bat hitzartzeko

Diputatuen Kontseiluaren 722/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, onartzen dituen 160/2016 eta 166/2016 kreditu transferentziaren espedienteak, 51.780 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "SISEU kontsumigarriak" eta "Erakunde autonomoaren ekipo informatikoak" partidak, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta, xedea baita ekipo informatikoak eta hainbat material erostea Arabako Suhiltzaileak erakunde autonomorako.

Diputatuen Kontseiluaren 723/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, onartzen duena 162/2016 kreditu transferentziaren espedientea, 81.980,94 euroko zenbatekoaz, "Suteen aurkako aurrearretako eta su itzaltzeko langile taldea" partidarako. Eskatzailea: Nekazaritza Saila.

Diputatuen Kontseiluaren 724/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, onartzen duena 167/2016 kreditu transferentziaren espedientea, 190.000 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko sortu berri diren "Termiten izurritea erazteko Moreda Araban" eta "Berantevillako udaletxea berritzea" partidak, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta.

Diputatuen Kontseiluaren 725/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, onartzen duena 175/2016 kreditu transferentziaren espedientea, 123.050,00 euroko zenbatekoaz, "Kanpoko lanak eta zerbitzuak" eta "Larrialdietarako Arabako funtsa" partidarako. Eskatzailea: Diputatu Nagusiaren Saila.

Diputatuen Kontseiluaren 726/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, onartzen duena 178/2016 kreditu transferentziaren espedientea, 99.825 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko sail horretako hainbat partida, Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta, xedea baita Hondakinen Kudeaketa Integrala programaren gastuen igoerari erantzutea.

Diputatuen Kontseiluaren 727/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, onartzen duena 179/2016 kreditu transferentziaren espedientea, 99.825 euroko zenbatekoaz, "Kreditu orokorra" partidara bideratzeko, Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta.

Diputatuen Kontseiluaren 728/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, 181/2016 eta 182/2016 kreditu transferentziaren espedienteak onartzen dituena, guztira 32.000,00 euroko zenbatekoaz, LIFE funtsek diruz lagundutako natura zaintzeko proiektuei dagozkien zenbait partidatarako. Eskatzailea: Ingurumen eta Hirigintza Saila.

Diputatuen Kontseiluaren 729/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, onartzen duena 183/2016 kreditu transferentziaren espedientea, 10.285,00 euroko zenbatekoaz, "Kultura hedatzeko eta zabaltzeko ekintzak" partidarako, instalazio artistiko iragankor bat kontratatuzko gastuak ordaintzeko. Eskatzaileak: Ingurumen eta Hirigintza Saila eta Euskara, Kultura eta Kirol Saila.

Diputatuen Kontseiluaren 730/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, onartzen duena 189/2016 kreditu transferentziaren espedientea, 123.750,00 euroko zenbatekoaz, "Hitzarmena Ganberarekin: COOP, FEF, GWC, VIAL" izeneko partida sortu berrirako, Arabako Merkataritza eta Industria Ganberarekin hitzarmena izenpetzeko, Arabako enpresa jardueraren lehiakortasuna hobetu dadin. Eskatzailea: Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saila.

Diputatuen Kontseiluaren 731/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, onartzen duena 191/2016 kreditu transferentziaren espedientea, 81.980,94 euroko zenbatekoaz, "Kreditu Orokorra" partidara bideratzeko. Eskatzailea: Nekazaritza Saila.

Diputatuen Kontseiluaren 732/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, hainbat aurrekontu aldaketa onartzen dituena "Urbisuko Arazte Sistemaren Hitzarmena" partidan, aurrekontu esleipe-nak Urbisun arazte sistema berria jartzeko proiektuko lanen egikaritze erritmora egokitze-ko. Eskatzailea: Ingurumen eta Hirigintza Saila

Diputatuen Kontseiluaren 733/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, onartzen duena "INDESA 2010 SL" sozietateko hogeitaz partizipazio sozial eskualdatzea Arabako Batzar Nagusiei.

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 734/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, luzatzen duena Gasteizko Udalak eta Errehabilitatzen ari diren Jokalarien Arabako Elkarteak (ASAJER) izenpetutako hitzarmena, ludopatei informazioa eman, ludopatiari aurrea hartu eta ludopatak bideratzeko programak eta zerbitzuak garatzeko.

Diputatuen Kontseiluaren 735/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, onartzen duena hitzarmena sinatzea Dulantzi Udalarekin, gizarte arriskuan dauden adingabeen eta gazteen arreta programa bat garatzeko ingurune irekian.

NEKAZARITZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 736/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, onartzen duena "Laborantza estentsiboa nekazaritzako ekoizpen teknika jasangarrien pean dibertsifikatzeko nekazaritza eta ingurumen laguntza" kudeatze aldera Eusko Jaurlaritzarekin izenpetu beharreko hitzarmena berresteko foru arau proiektua, bai eta hura Batzar Nagusietara bidaltzea ere, arauz izapidetu dadin; eta, aldi berean, baimena eskatzea hitzarmena izenpetzeko, hura berretsi aurretik.

Diputatuen Kontseiluaren 737/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, behin betiko onartzen duena "Omeçillo ibaiaren ezkerreko ertza (V. zona) hobetu eta modernizatzeko proiektua", 4.035.168,78 euroko zenbatekoaz eta 24 hilabeteko gauzatze epeaz, eta hasierako onarpena ematen diona proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta banakakoari.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 738/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, "2016-2017 kanpainako neguko bidezaintza programa" onartzen duena.

Diputatuen Kontseiluaren 739/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, Firmes Alaveses SA enpresari esleitzen diona "A-2130 errepidean, 2+670 kilometrotik 5+930 kilometrora bitartean, erroadura geruza berritzeko proiektua" ren obrak gauzatzea, 189.435,24 euroko zenbatekoaz, BEZa barne, eta 3 asteko epearekin.

Diputatuen Kontseiluaren 740/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, Firmes Alaveses SA enpresari esleitzen diona "A-3140 errepidearen zorua, 15+050 kilometrotik 18+290 kilometrora bitartean, hobetu eta finkatzeko eraikitze proiektua" ren obrak gauzatzea, 188.463,83 euroko zenbatekoaz, BEZa barne, eta 3 asteko epearekin.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 741/2016 Erabakia, azaroaren 8koa, esleitzen dizkiona "Construcciones Itola SA" enpresari prozedura ireki bidez "Dulantziko udalerriko banantze sarearen eraikuntza proiektuaren ipar ekialdeko jardunak xehakatu eta eguneratzea" proiektuko obrak, 393.101,71 eurotan (BEZa barne) eta 3 hilabeteko gauzatze epearekin.